



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailak 14**

**Vitoria-Gasteiz, 14 de febrero de 2023**

## Lehendakaritza

### EUSKO JAURLARITZAK AURTENGO ARAU-PLANA ONARTU DU

- **Plana Irekia gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran 2023rako aurreikusitako Urteko Araugintza Plana onartu du. Planak jasotzen ditu aurten Jaurlaritzako sail bakoitzak Gobernu Kontseiluan onartzeko aurkeztuko dituen arau-ekimenak (Lege-aurreproiektuak eta Dekretuak).

Plana **Irekia** gardentasun-atarian argitaratuko da, herritarren beharrezko informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bermatzeko.

### 2023ko URTEKO ARAUGINTZA PLANA

#### 1. LEHENDAKARITZA

- Kanpoko Euskal Komunitateari buruzko Legearen aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, Gaztemundu programa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Kanpoko Euskal Komunitatearentzako laguntza-laguntzei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Kanpo Harremanen arloan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, gazteen boluntarioritza-eremuetako Auzolandegiak programa arautzen dueña
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Haur eta Gazteen Aisialdiko Hezitzaileak Prestatzeko Eskolak eta Haur eta Gazteen Aisialdiko Hezkuntza Jardueretako Begirale eta Zuzendariak Prestatzeko Ikastaroak ofizialki onartzeko eta horietan sartzeko modua arautzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, gazteen mugikortasunerako edo trukerako jarduerak garatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, gazteen emantzipazio-diagnostikoak eta -planak egiteko EAEko toki-erakundeentzako dirulaguntzen oinarriak arautzen dituena.

#### 2. SEGURTASUN SAILA

- Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Lege-aurreproiektua.
- Suteen prebentzio eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak arautzen dituen Lege-aurreproiektua.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziakidegoen Funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaonartzen duen dekretu proiektua.
- Ertzaintzaren espezialitatei buruzko Dekretu-proiektua.
- Udaltzaingoak defendatzeko eta hornitzeko baliabide teknikoak arautzeko Dekretu-Proiektua.

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Barne Arautegia onartzen duen Dekretu-proiektua.
- «Euskalmet – Agencia Vasca de Meteorología SA» sozietate anónimo publikoa sortzeko Dekretu-proiektua.
- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan erabili beharreko hauteskunde materialaren eta dokumentazioaren eredu ofizialak eta ezaugarri teknikoak baita material hori entregatzeko prozedura ere zehazten dituen Dekretu-proiektua.

### 3. LAN ETA ENPLEGU SAILA

- Euskal Enplegu Sistemaren Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, kooperatiben arloko zehapen-prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita EAEko langile autonomoen elkarte profesionalen erregistroaren antolaketa eta funtzionamendurako araudia.
- Dekretu-proiektua, prebentzio zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituen.
- Dekretu-proiektua, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta enplegu-agentzien artean enplegu-zerbitzua emateko hitzartutako ekintza arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzeko, enpresa horietan sartzeko prozedura ezartzeko eta enpresa horiek erregistratzeko arautzen dituen.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu proiektua, Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoarena.
- Dekretu-proiektua, Diru sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.

### 4. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNU SAILA

- Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzeari buruzko Lege-aurreproiektua
- Lege-aurreproiektua, euskal ondare zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-enpresaren eta ondarearen defentsari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten tokiadministrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki- Erakundearen Erregistroa arautzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzekoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko dena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, euskal sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzko akordioa onartzeko dena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakunde arteko Batzordea arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko elkargoa sortzeko dena.

## 5. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

- Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Lege-aurreproiektua
- Dekretu-proiektua, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, energia eolikotik energia elektrikoa sortzeko instalazioen baimena arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, AEM-01 igogailuei buruzko Jarraibide Tekniko Osagarria garatzekoa.
- Dekretu-proiektua, portuetako Udal Kontseiluak sortzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategien Erregistroa eta ustiapen-koaderno elektronikoa arautzen dituena, eta ustiapen-koadernoari buruzko 203/2011 Dekretua eta 2014ko azaroaren 18ko Agindua indargabetzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen ongizaterako eta abeltzaintzako ustategien eta instalazioen antolamendu zooteknikorako baldintza higieniko sanitarioak arautzen duena.
- Esparru-dekretu proiektua, Euskadin Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) programa estrategikoa garatzekoa.
- Erakunde Ordaintzailearen 275/2020 Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.
- Dekretu-proiektua, arrantza ikuskaritza zerbitzuarena.
- Dekretu-proiektua, etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepak balorizatzeko jarduerari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Izki Naturagune Babestuaren, Parke Naturalaren, Kontserbazio Bereziko Eremuaren eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren natura-baliabideak antolatzeko bigarren plana onartzen duena eta Izki Parke Naturalaren eta haren babes-zona periferikoaren mugak aldatzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Armañongo Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren mugak eta haren babes-eremu periferikoa aldatzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Aitzkorri Arazko Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Egitamua aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinei buruzko Dekretua eta Agindua aldatzeko eta lurrak berrerabiltzeko eta balioztatzeko irizpideak ezartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Komunitateko konpostaje-instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.
- Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta haren helburuak eta kontserbazio-neurriak egokitu eta eguneratzeko izendapen-dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Genetikoki Eraldatutako Organismoak kontrolatzeko Biosegurtasunaren Euskal Batzordea sortzen duena, genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko eta nahita askatzeko baimenak komunikatzeko eta eskatzeko prozedura arautzen duena eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Baimen eta Komunikazioen Erregistroa sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, Uraren Euskal Agentziaren estatutuak aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzekoa.

## 6. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

- Finantzen Euskal Institutuaren Lege-aurreproiektua.
- Diru-laguntzen araubidea arautzen duen Lege-aurreproiektua.
- 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren Lege-aurreproiektua.
- 2023ko Urteko Estatistika Programari buruzko Dekretu-proiektua.
- Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatzeko eta gainbegiratzeko Dekretu-proiektua.
- EAEko higiezin kredituko bitartekarien eta higiezin maileguemaileen baimena eta erregistroa eta horiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzeko duen Dekretu-proiektua.
- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan zenbait dekretu aldatzeko duen Dekretu-proiektua.

## 7. HEZKUNTZA SAILA

- Euskadiko Hezkuntza Lege-aurreproiektua.
- Dekretu-proiektua, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretua aldatzeko dena (21/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zentroren sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena).
- Dekretu-proiektua, Ikastetxe ez unibertsitarioen zuzendaritza taldeak hautatzeko prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, aldatzeko dena (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen "Musika-Eskola" direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena).
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedurari jarraituko zaion Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araubide bereziko kirolkasketak emango dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko eta emandako baimenak aldatu eta azkentzeko.
- Dekretu-proiektua, Batxilergoaren Curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
- Dekretu-proiektua Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
- Dekretu proiektua, unibertsitateaz kanpoko irakas sistema ebaluatu eta ikertzeko Erakundearen egitura eta funtzioak arautzen dituen Dekretuaren aldaketarako.
- Dekretu-proiektua, Urrutiko Prestakuntzako Euskal Institutuaren antolamendu, funtzionamendu eta autonomia ezartzen duen ekainaren 19ko 93/2018 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak eguneratzen dituena, horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleek Hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari eman beharreko erantzunari buruzko Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Ingurune estrategikoen bultzatze eta garatzea "TKGUNE" Programaren erregulazioaren bitartez.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren eranskina aldatzen duena, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez formalen bidez

eskuratutako lanbidekonpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, prozeduran parte hartzeagatik aholkulariei, ebaluatzaileei eta ebaluazio-batzordeei eman beharreko konpentsazio ekonomikoak ezartzen dituena.

- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, lanbide-heziketako eredu konbinatuan espezializatutako zentroyen sarea sortzekoa.
- Berrikuntza Aurreratuaren Kudeaketan Espezializatzeko Programak arautzen dituen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ematen dituen titulazio ofizialak lortzeko unibertsitate ikasketen esperimantalasun-mailak zehazten dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunpeko Ikastetxe Pribatuetako Hezkuntza-Itunen Araubidea eta Ordainketa Eskuordetuaren Sistema Arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailak finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak ez diren ikastetxe publikoetako ikasleen eskola garraioa arautzen duen dekretua aldatzea.
- Dekretu proiektua, 218/1997 Dekretua, zeinaren bidez urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorreko Lege Organikoari dagozkion titulu akademiko eta profesional ez unibertsitarioen erregistroa sortzen duena, aldatzeko.

## **8. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA**

- Hirigintza estandarrak arautzen dituen Dekretua.
- Etxebizitza lege okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretua.
- Kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzako, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeko Dekretua.

## **9. OSASUN SAILA**

- Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren menpeko zerbitzuerakundeetako profesionalen garapen profesionala arautzen duena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio sistemako laneko medikuntzaren prebentzio-diziplinaren kanpoko auditoria edo ebaluazioa egiteko baimena duten prebentziozerbitzuen eta pertsona edo erakunde espezializatuen osasun-jarduera arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubideari buruzko maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretua aldatzeko edo ordezteko Dekretu-proiektua.
- Erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua aldatzeko edo ordezteko Dekretu-proiektua.
- Adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duen Dekretu-proiektua.
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programako (PADI) osasun-zerbitzuak emateko Dekretu-proiektua.
- Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretua ordezteko Dekretu-proiektua.
- Azaroaren 28ko 500/1995 Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua, botikinen funtzionamendu-erregimenerako baldintzak eta baimen-prozedura ezartzen dituena.
- Farmazia-bulegoetako nutrizio- eta dietetika-atala arautzeko Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak arautzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektua.

## **10. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

- Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Lege-aurreproiektua.

- Garapenerako Lankidetzaren Lege-aurreproiektua.
- Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua.
- Legegintzako Dekretuaren proiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Dekretu-proiektua: espetxe-arloko lanaren eta ikerketaren "Francisco Javier Gomez Elosegui" saria sortu eta arautzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundearen Errolda sortu eta haren funtzionamendua arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partehartzea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Arreta Pertsonalizatuko Planari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, adinekoentzako ostatu-zerbitzuei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, etxeko indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako informazioa eta arreta emateko zerbitzuarena.
- Dekretu-proiektua, Bonu termikoari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, familia-bitartekaritzako zerbitzu integralari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako Foroa sortzeko dena Izapidetzen/Zerbitzu Juridiko Nagusiaren txostena eskatu zain.
- Dekretu-proiektua, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena.
- Seme-alabak dituzten familientzako laguntzen dekretu proiektua.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egiturari buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektua.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta horren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimeen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, espetxeratuei, baldintzapean askatutako presoiei eta senideei laguntzak ematekoa.
- Transexualen dokumentazio administratiboa arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria arautzen duen Dekretu-Proiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzazentzoei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua aldatzekoa.

## 11. KULTURA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KIROLA SAILA

- Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortzeko Dekretu-proiektua.
- Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko, azaroaren 9ko, 297/2010 Dekretua bigarren aldiz Aldatzeko, Dekretu-proiektua.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen, urriaren 16ko, 222/2012 Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua.
- Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko Dekretu-proiektua.

- Euskal Aautonomia Erkidegoko kultura ondasun immaterialaren inbentarioa egiteko prozesua, haren egitura eta irispidea ezartzen duen Dekretu-proiektua.
- Erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapena ebaluatu eta aitortzeko sistema arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko Dekretu-proiektua.
- Goi-mailako Kirolari buruzko Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentuak Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordearen (COVASADE) funtzionamenduari buruzko Dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Sistemaren Erregelamendua onartzen duen Dekretu-proiektua.

## **12. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA**

- Dekretu-proiektua, Euskal kultura ondareko elementu katalogatuen barneko turismo-gidariaren jarduna gaitzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Hotel-establezimenduei buruzkoa.
- Turismo aktiboa arautzen duen dekretu-proiektua.
- Bigarren eskuko ibilgailuen salerosketan kontsumitzaileen informazio-eskubidea arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratzen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzen duen Dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko 101/2018 Dekretua aldatzen duena (landa-ingurunea).
- Dekretu-proiektua, kontsumoko erreklamazio-orriari eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzko uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua aldatzen duena.



## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK EUSKAL ERAGILEEN ETA QUEBEC-EN ARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK BABESTUKO DITU

- **Eskualdea Euskadiko Bazkide Estrategikoen Sarearen parte da**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Quebec-ekiko lankidetzaren tekniko proiektuetarako laguntzen deialdiari.

2023-2024rako laguntzek 50.000 euro hartzen dituzte guztira, eta 2019an onartutako dekretu baten barruan daude. Dekretu horren helburua da aldebiko harremanak areagotzea eta aliantza eta lankidetzaren berriak ezartzea Euskadira estrategikotzat jotzen diren kanpoko beste eskualde batzuekin, hala nola Quebec-ekin, zeinarekin Euskadik Elkar Ulertzeko Memorandum bat sinatu baitu 2017tik.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten pertsona juridiko pribatuei zuzenduta daude dirulaguntzak, baldin eta alde biko jardueraren edo lankidetzaren proiektu bat aurkezten badute eta Quebecoko bazkide baten partaidetza badute. Proiektu bakoitzeko laguntza 5.000 €-koa izango da gehienez.

Zehazki, diruz lagundu daitezkeen alde biko lankidetzaren proiektuen gaiak hauek izango dira:

- **Kultura:** jakintza eta esperientzia trukeak kultura arloan; bereziki, hauetan: ondarea, artisten mugikortasuna, artisten, sortzaileen edo kultura-industriaren arteko truke profesionalak, eta lanen, ondare-ondasunen eta kultura-produktuen hedapena.
- **Hizkuntza-politika:** adituen eta ikertzaileen arteko trukeak, bakoitzari dagokion hizkuntzaren garapen eta sustapenaren eremuan, baita arlo horretako informazioaren eta jardunbide onen trukeak ere.
- **Ekonomia:** Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Quebecen arteko informazio-trukeak, negozioa egiteko eta inbertitzeko aukerei buruz. Nork bere itsas ekonomiari dagokionez, hazkunde jasangarriko esperientziak trukitzea.
- **Ingurumena:** informazioaren eta jardunbide onen trukea, klima-aldaketaren kontrako borrokari eta ingurumenaren babesari buruz.
- **Ikerketa, teknologia-garapena eta berrikuntza:** informazioaren eta esperientzien trukeak, baita nazioarteko partzuergoetan elkarrekin jardutea sustatzea ere.

Quebec-ekin batera, Jaurlaritzak 40.000 euroko dirulaguntzen deialdi

bateratua onartu zuen iazko amaieran, Galesekin, Flandiarekin eta Korsikarekin lankidetzaproiektuak bultzatzeko. Proiektu horiekin Euskadik Elkar Ulertzeko Memorandum bat (Galesekin eta Korsikarekin) eta Asmoen Adierazpen bat (Flandiarekin) sinatu ditu.

### **Bazkide Estrategikoen Sarea**

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ondorengo eskualde hauekin sinatu ditu akordioak eta memorandumak: Jiangsu (Txina), Bavaria (Alemania), Flandria (Belgika), Queretaro (Mexiko), Cundinamarca (Kolonbia), Quebec (Kanada), Gales (Erresuma Batua), Akitania Berria (Frantzia) eta Korsika (Frantzia).

Atzerrian Euskadiren interesen zati handi bat biltzen duten eta lehentasunezko arreta jasotzen ari diren lurraldeak dira —Euskadi nazioartekotzeko, esparru geografiko estrategikotzat jotzen dira eskualde horiek—.

## Lan eta Enplegua

### **LANEKO HITZARMEN ETA AKORDIO KOLEKTIBOEN ERREGISTROA EGUNERATZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DA, BERDINTASUN-PLANAK SARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta -akordio kolektiboen Erregistroa aldatu eta arautzen duen Dekretua onartu du gaur, Berdintasun-planak sartzeko.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, orain arte indarrean egon dena (9/2011) eguneratzen duen Dekretua berretsi du Kontseiluak, eta egungo araudira egokitu du. Haren helburua da Enpresetako Berdintasun Planen Erregistroa sartzea Euskal Autonomia Erkidegoko lan-agintaritzaren mendeko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen Erregistroan, eta denborarekin zaharkituta geratu diren arau-erreferentziak eguneratzea.

Enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko 6/2019 Errege Lege Dekretuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa aldatu zuen. Zehazki, enpresetako Berdintasun Planen Erregistroa sortzea ezartzen duen atal bat gehitu zuen. Gainera, honako hauek agindu zituen: diagnostikoaren erregelamendu-garapena, edukiak, gaiak, soldata-auditoretzak, berdintasun-planen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak, eta Berdintasun-planen Erregistroa, eraketari, ezaugarriei eta izena emateko eta sartzeko baldintzei dagokienez.

Agindu hori betetz, 901/2020 Errege Dekretua eman zen, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko guztia aldatzen duena. Errege-dekretu horren xedea da berdintasun-planen erregelamendu bidezko garapena eta diagnostikoa egitea.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN ORDAINSARIAK %2,5 IGOTZEA ONARTU DU 2023RAKO**

Gobernu Kontseiluak 2023. urterako ordainsari igoera onartu du gaur Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren langileentzat. Horrela, %2,5eko igoera orokorra baimendu du, aurtengo urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2022an indarrean izan diren urteko ordainsari osoen aldean. Administrazio Orokorraren, erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen, fundazio publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoen zerbitzura diharduten funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei eragiten die neurri honek. Baita Lehendakariarentzat, sailburuentzat, goi-karguentzat eta antzekoentzat, behin-behineko langileentzat eta zuzendaritzako langileentzat ere.

Igoera aipatutako talde bakoitzarentzat indarrean dauden ordainsari kontzeptu guztiei aplikatzen zaie. Aurreikusitako zenbatekoa 103.627.047 eurokoa.

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 7 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKASTETXE PUBLIKOETAN JOLASTOKI INKLUSIBOAK SORTZEKO

- **Udalei zuzenduriko deialdia da, euren titulartasuneko eskola-instalazioetan jolastoki inklusiboak sortzeko lanak egin ditzaten**
- **Hezkuntza Sailak finantzatu du jolastoki inklusiboak sortzeko lanen aurrekontuaren % 90**
- **Deialdi hau Hezkuntza Sailak urtero deitzen duen Udalaguntza deialdiaren osagarria da**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, udalen jabetzakoak diren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eraikinetan jolastokiak sortzeko eta zaharberritzeko lanak finantzatzeko. 7 milioi euroko zenbatekoa duen deialdi honek, azken batean, aipatutako ikastetxeetan jolastoki inklusiboak sortzea sustatzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak udal-titulartasuneko instalazioetan daude kokatuta, eta laguntza hauek, beraz, euren jabetzako eskola-eraikinetako jolastokiak sortzeko edo horietan hobekuntzak egiteko obra-proposamenak aurkezten dituzten Euskadiko udalei zuzenduta daude.

Laguntza hauen onuraduna izateko, obrak 2022ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi eta 2023ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira. Obra horiek gauzatzeko, Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak Balorazio Batzordeak onartutako aurrekontuaren % 90 hartuko du bere gain. Gainerako % 10 obra-proiektua aurkezten duen udalaren kontu izango da. Eskaera bakoitzari emandako kopurua ezin izango da 87.120 eurotik gorakoa izan, BEZ barne (72.000 euro + BEZ).

### Jolastoki inklusiboak

Dirulaguntza hauen bidez finantzatu ahal izango dira berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko eta ikasteko patio inklusiboak sortzeko obrak. Jolastoki inklusibo kontzeptuak jolaserako espazioak eta uneak sortzeari egiten dio erreferentzia. Espazio horietan, ikastetxeko haur guztiek beren intereseko jolas-jarduerak egin ahal izango dituzte ikuspegi inklusibotik eta hezkidetzatik.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren II Hezkidetzeta-planarekin lerrokatu egiten da ("EAEko Hezkuntza Sistemarako II Hezikidetzeta-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean"). Plan honek, bere gidalerroetan eta oinarrizko zutarrietan, baliabideen eta espazioen erabilera ekitatiboa bultzatzeren aldeko apustua egiten du; izan ere, espazioen banaketak eta erabilerak eta hezkuntza-

ingurunearen antolakuntzak ere garrantzizko eginkizuna betetzen dute balioen eta arau sozialen transmisioan.

Aipatutako planak arreta berezia eskaintzen die, beste hainbat alderdiren artean, jolastokiei. Beste era bateko jolastokiak diseinatzea eskatzen du, jolaserako espazio horiek beste era batera antolatzea. Azken batean, jolastoki inklusiboak sortzea, gune horietako jarduerak eta espazioen banaketa berdintasunezko harremanak errazteko eta erabilera ekitatiboa izateko diseinatuta egon daitezten. Hezkidetzako eremuak sortu nahi dira, elkarbizitza nagusitzeko aukera emango duten jolastokiak, sexua, adina, orientazio sexuala, gaitasuna eta genero-adierazpena alde batera utzita.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ildo horretan eta hezkidetzazko helburuarekin garatuko diren jarduketak finantzatuko ditu.

### **Udalaguntza deialdiaren osagarri**

Jolastoki Inklusiboak sortzeko deialdi berria Hezkuntza Sailak urtero egiten duen Udalaguntza deialdiaren osagarria da. Udalaguntza deialdiaren bidez, udalek ikastetxeetako instalazioetan egiten dituzten hobekuntza eta eguneratze lanak finantzatzen ditu Hezkuntza Sailak (teilatua berritzea, irisgarritasunerako lanak, instalazioak hobetzea, kanpoko arotzeria ordezkatzeta...).

Udalek hilabeteko epea izango dute eskaerak aurkezteko, Agindua EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **ALOKAIRUKO 16 BOE SUSTATZEKO EAKO UDALAREKIN EGINDAKO HITZARMENAK ONIRITZIA JASO DU**

Gobernu Kontseiluak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak eskatuta, alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzen sustapen bat garatzeko Eako Udalarekin hitzarmen bat sinatzea baimendu du. Etxebizitzak udalerrri horretan errolatutako pertsonak jasoko dituzte.

Akordio horren bidez esker, Udalak Eusko Jaurlaritzari 1.673 metro koadroko lurzorua doan lagatuko dio. Etxebizitza Sailak 16 etxe berri inguru eraikiko eta kudeatuko ditu bertan, eta eraikuntzaz eta ingurunearen urbanizazioaz arduratuko da.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK 14,8 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU DOAKO JUSTIZIA FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak 14,8 milioi euroko gastua baimendu du gaur, Euskadiko Abokatutzako eta Prokuradoretzako Elkargo Profesionaletako abokatuek 2023an emango duten doako laguntza juridikoaren zerbitzua finantzatzeko.

Doako Justizia eskubide konstituzional bat da, eta Abokatutzako profesional baten zerbitzu partikularrak kontratatzekeo baliabide ekonomiko nahikorik ez duten inputatuei, atxilotuei edo presoiei laguntzen die gehienbat.

Esparru horren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza juridikoa eskatzeko izapidetutako espedienteen kopurua 32.450 izan zen 2022an; horietatik % 88k horren tramitaziorako aldeko irizpena jaso zuen.

Halaber, Doako Justiziaren eskatzaile guztien % 38 emakumeak ziren, eta gainerako % 62 gizonak. Eta, zehazki, 3.669 espediente genero-indarkeriaren biktimekin lotuta zeuden.

Eusko Jaurlaritzak 2023an Doako Justizia finantzatzeko egindako ekarpena — guztira 14.826.022 euro— 5 partida nagusitan banatzen da:

- 12,6 milioi euro Abokatuen Elkargoetara bideratu dira ofiziozko eta guardiako txandak finantzatzeko.
- 630.000 euro Prokuradoretzara bideratuko dira ofiziozko txandarako.
- 1,27 milioi euro Abokatuen Elkargoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko —ematen dituzten zerbitzuengatik— izango dira.
- 164.620 euro Prokuradoretzako Elkargoei ordainduko zaizkie kontzeptu beragatik.
- Azkenik, 160.992 euro erabiliko dira Abokatuen Elkargoek espetxeratuen lege-laguntzaren txandagatik dituzten gastuak konpentsatzeko. Zerbitzu horretara 356 profesional daude atxikita: Araban 125, Bizkaian 158 eta Gipuzkoan 73.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 480.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DITU ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOEN EREMUKO JARDUERAK

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko 2023ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko deialdia. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 480.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara, aurreko urtean baino 16.000 euro gehiago.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen modalitateak eta jarduerak:

- **Sustapen-zabalkundearen modalitatea:** 55.000 euro bideratuko dira arte plastikoen eta ikusizkoen eremuan arte garaikideko gertakizun eta adierazpenak antolatzea: erakusketak, lehiaketak, batzarrak, jardunaldiak, kongresuak, lantegiak, hitzaldiak, ... Horien helburua bada Euskadin bizi diren artistak sustatzea eta zabaltzea eta Euskadin arte garaikidea sustatzea. Jarduketara horiek euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko dira.
- **Argitalpenen modalitatea:** arte plastiko eta ikusizkoen eremuan euskarri desberdinetan publikazioak egitea, beren xedea Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea bada. Horretarako 135.000 euroko diru partida dago.
- **Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea:** 290.000 euroekin arte plastiko eta ikusizkoen sorkuntza-ekoizpenaren eremuan proiektuak egitea lagunduko da: arte-lanak ekoiztea eta ikertzea. 5.000 euroko 22 laguntza, 8.000 euroko 18 laguntza eta 12.000 euroko beste 3 laguntza banatuko dira.

Interesa dutenek martxoaren 4tik aurrera hilabeteko epea izango dute beraien proiektuak aurkezteko.

lazko deialdian guztira 61 proiektu lagundu ziren diruz. Bost proiektu lagundu ziren sustapen-zabalkundearen modalitatean, 15 argitalpenen modalitatean eta 41 sorkuntza-ekoizpenaren modalitatean.

## Presidencia

### EL GOBIERNO VASCO APRUEBA SU PLAN NORMATIVO PREVISTO PARA ESTE AÑO

- **El Plan será publicado en el portal de transparencia Irekia, para garantizar la información, colaboración y participación de la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy Plan Anual Normativo previsto para 2023. El Plan recoge las iniciativas normativas (Anteproyectos de Ley y Decretos) que cada uno de los departamentos del Ejecutivo tiene previsto presentar este año para su aprobación en Consejo de Gobierno.

El Plan será publicado en el portal de transparencia, participación y colaboración **Irekia**, con el fin de garantizar la información y participación necesaria de la ciudadanía.

### PLAN ANUAL NORMATIVO 2023

#### 1.- LEHENDAKARITZA

- Anteproyecto de Ley para la Comunidad Vasca en el Exterior
- Proyecto de Decreto por el que se regula el programa Gaztemundu.
- Proyecto de Decreto de ayudas asistenciales para la Comunidad Vasca en el Exterior.
- Proyecto de Decreto de modificación del Decreto 12/2019 de 29 de enero por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el área de Acción Exterior.
- Proyecto de Decreto por el que se regulan las becas formativas en materia de Transición Social y Agenda 2030.
- Proyecto de Decreto que regula el programa Auzolandegiak de campos de voluntariado juvenil.
- Proyecto de Decreto que regula el programa Juventud Vasca Cooperante.
- Proyecto de Decreto de segunda modificación del Decreto por el que se regula el reconocimiento oficial de Escuelas de Formación de Educadores/as en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil y de los Cursos de Formación de Monitores/as y Directores/as de Actividades Educativas en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil, así como el acceso a los mismos.
- Proyecto de Decreto que regula las bases de las subvenciones para el desarrollo de programas y actividades en el ámbito de juventud.
- Proyecto de Decreto que regula las bases de las subvenciones para el desarrollo de actividades dirigidas a la movilidad o al intercambio juvenil.
- Proyecto de Decreto que regula las bases de las subvenciones a entidades locales de la CAE para la elaboración de diagnósticos y planes de emancipación juvenil.

#### 2.- DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- Anteproyecto de Ley de creación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.
- Anteproyecto de Ley por el que se regulan los servicios de prevención y extinción de incendios y salvamento.
- Proyecto de Decreto de estructura orgánica y funcional del organismo autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias.
- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de los Cuerpos de Policía del País Vasco.
- Proyecto de Decreto sobre las especialidades en la Ertzaintza.
- Proyecto de Decreto de reglamentación de medios técnicos de defensa y dotación de

las Policía Locales.

- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Régimen Interior de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.
- Proyecto de Decreto de creación de la Sociedad Anónima Pública “Euskalmet, S.A.- Agencia Vasca de Meteorología, S.A.”
- Proyecto de Decreto por el que se determinan los modelos oficiales y las características de las urnas, cabinas, papeletas, sobres de votación y demás documentación electoral a emplear en las Elecciones al Parlamento Vasco, así como el procedimiento de entrega del citado material.

### **3.- DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO**

- Anteproyecto de Ley del Sistema Vasco de Empleo.
- Proyecto de Decreto por el que se modifica el Decreto del registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo del País Vasco.
- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi.
- Proyecto de Decreto por el que se regula el procedimiento sancionador en materia de cooperativas.
